

HOBERENEN HAUTAKETAZ.—Aurtengo maiatzean publikoki eta hots handiz adierazi digute egunkari eta aldizkari ospetsuek nagusiki eratu zuten nazioarteko *erreferendum* batean, inglesak, espainolak, frantsesak, austro-hungariarrak (alemanak barne direla) eta italiarrak partaide, Europak inoiz eman dituen idazlerik onenak hautatu dituztela.

Jakina da holakoetan urak bakoitzak bere errotara erroten dituela. Behar bada lehenengo hiru edo laurak izan daitezke inork zalantzarik ez jartzekoak: Shakespeare, Goethe, Cervantes, Dante, Molière... ez da gaizki. Hala ere, guk geure zalantzak. Grezia zaharrekoek gure egungo kulturatik urrutitxo nonbait. Baina kostako zaie kazeta eta aldizkariari Europan bere erroak moztea. Beste ehundaka urte batzu igaro ondorean zer ikuspegi izango ote da?

Baina, harrigarriena zera da, Unamuno 45. jartzea eta Dostoyewsky kale. Bilbotar filosofoa berekoia eta harroa bazen ere, ez dut uste bere maisuetarikotzat zuen errusoa bere atzetik jarriko zuenik eta gutiago baztertu.

Hautaketa horrek, zera gogoratzen dit, behin Ingalaterran, Chaplin (Txarlot)-en sinadura nork hobeto egin lehiaketa

eratu, Chaplin berak ere, disfrasaturik, parte hartu, eta laugarren gelditu.

Erreferendun horretan Europaren Ifarraldekoak eta Ekialdekoak kanpoan uztea ezta kasualitatez gertatu, txaubinismoen eraginez baizik.

Gure artean ez da txaubinismorik (?); izatekotan ere «txumanismoa». Orain egina dugu mende hontako hogetamar hoberenen hautaketa. Dena dela, esaera zaharra lekuko, buru haina aburu. Bestela galde Ibon Sarasola eta Josu Landari, zeren hoiek ere hortaz ibiliak dira. Kontsultatuak ote ziren? Ez, noski.

Monzon Olasoneko, antzerkilari bezala hain ona ez bazen, poeta bezala txarra zela ez dago esan beharrik. Kantatzekoak doinuz kamuflaturik zerbait luzitzen dira, baina letra bere gorrian uzten bada, gorria ere ez zela nabarmen ageri da. Bitartean Gaztelu, Joxe Azurmendi, J. Zulaika, P. Urkizu, Mikel Arregui, X. Azurmendi, M. Iturbe, Mikel Zaratte, Paulo Iztueta, P. Zabala,... horien mailakoek ez dute lekurik. Antzerkia, zalantzagatik baztertzen dugu, inor ez balego bezala. Baina, Monzon, inon sartzekotan, hor behar zuen. Bittor Garitaonandia, Abelino Barriola, Toribio Altzaga eta gainerakoak ez ote ziren zerrendan jartzen zituen askoren hainakoak? Ah!, Larzabal, Landart eta beste, gaxo zuek, zeren prosaz ez bai du tokirik izan Koldo Izagirrek gure egunotako hoberenetarik bat izanarren.

J. S. M.